

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 3566

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita nola osatuko den 2022an lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratze eta berrikuntzako gizarteratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordea.*

2022an lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratze eta berrikuntzako gizarteratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen deialdiaren 7. artikulua (2022-06-22ko EHAA) prozedura eta ebazpena arautzen ditu, eta artikulua horren 2.1 apartatua ezarri da ebaluazio-batzorde tekniko bat sortuko dela aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko.

Honako hauek izango dira batzordekideak eta, haiek ez daudenean, haien ordezkariak bertaratuko dira:

- Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.
- Lan Aktibazioko zuzendaria.
- Prestazioen eta Inklusioaren zuzendaria.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren bost teknikari, xede horretarako izendatutakoak; horietako batek idazkari gisa jardungo du, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidearekin.

Aipatutako deialdiko 7. artikulua arabera, ebaluazio-batzordea aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena egiteaz arduratuko da.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Antolatzeko Printzipioen Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emakida-proposamena egiteaz arduratuko diren organoen osaera.

Aurrekarietan jasotakoa dela bide,

#### EBATZI DUT:

Ebazpen honetan aipatutako deialdiaren 7. artikuluan aipatutako ebaluazio-batzordearen osakeraren berri emango da:

Batzordeburua:

- Juan Carlos Ibarrola Sáenz de Ugarte, Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.

Idazkaria:

- Veneranda Andrés, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Batzordekide titularrak:

- María Teresa Martínez Granada, Lan Aktibazioko zuzendaria.
- Sara Buesa Rodríguez, Prestazioen eta Inklusioaren zuzendaria.
- Ángel Altuna Urcelay, Laneratze Zerbitzuko teknikaria.
- Marta Etxebarria Ubis, Enpresei Zerbitzua Emateko Zerbitzuko teknikaria.
- Estíbaliz Aguirre Maruri, Prestazioen eta Inklusioaren teknikaria.
- Zuriñe López de Arana Prado, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Ordezko batzordekideak:

- Eduardo Campo Guillerna, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Mari Carmen Veja-Murguia Basterra, Enplegurako Lanbide Heziketa Zerbitzuko arduraduna.
- Marta Palenzuela Saenz de Buruaga, Enpresei Zerbitzua Emateko Zerbitzuko teknikaria.
- Jesús M.<sup>a</sup> Ordoñez Orzaiz, Laneratze Zerbitzuko arduraduna.
- José Manuel Bergaretxe Zubizarreta, Prestazioen eta Inklusioaren teknikaria.

Ebaluazio-batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da batzordeburua eta idazkaria edo, hala badagokio, haien ordezkariak eta gutxienez batzordekideen erdia bertaratzen direnean.

Batzordeburua ez dagoenean, batzordekide batek zuzenduko du batzordea, lehen zerrendatutako hurrenkeran.

Idazkaria ez dagoenean, batzordekide batek beteko ditu bere funtzioak, lehen zerrendatutako alderantzizko hurrenkeran.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 13a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria,  
JUAN CARLOS IBARROLA SÁENZ DE UGARTE.